

IRUNVI/IRUNGO UDALEKO BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZAREN ESKATZAILEEN ERREGISTROA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUA

I.- SARRERA

Irungo Udalak, IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA / SOCIEDAD PÚBLICA DE VIVIENDA DE IRUN, S.A.U. IRUNVIren bitartez, Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroa dauka funtzionamenduan 2003ko urtarrilaren 7tik, denboran izaera irekia duela. Hartan, irundarren eskaerak jasotzen dira, betiere etxebizitza babestuen gaian dagoen araudian oinarritutako betekizunaz betez gai horretako sustapenetan esleipendun izaterik baldin badute bai udal partzeletakoetan bai pribatueta, etxebizitzak esleitzeko gestioa IRUNVIren ardura bada.

Aipatutako erregistroa ireki aurretik, IRUNVIko Administrazio Kontseiluak 2002ko abenduaren 3an egindako bilkuran onetsi zuen "Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Irungo Udalaren/IRUNVIren datu-basean Izena ematea eskatzeko Inprimakia eta Prozeduraren Eskuliburua". Dokumentu horiek arautu dute bai Eskatzaileen Erregistroan izena ematea bai haren funtzionamenduan eta esleipen-prozedurak, baina eskaera aldatu egin zen 2009ko martxoaren 6ko Administrazio Kontseiluaren erabakiaren bidez, BPEetan izena emateko Eskaera berri bat onetsi baitzen.

Etxebizitza babestuen esleipendun izateko eskatutako betekizunei dagokienez, Administrazio Kontseiluak 2002ko urriaren 4ko bilkuran onetsi zuen 5 urte ezartzea erroldatuta egoteko betekizun minimoa. Administrazio Kontseiluak zabaldu egin zuen betekizun hori, 2002ko abenduaren 2ko erabakiaren bidez, eta azken bost urteetan Irunen erroldatuta egoteko betekizunaren alternatiba gisa ezarri zuen azken hogeitau urteetan gutxienez hamar urte erroldatuta egona izan behar zela. Gainerako betekizunak, diru-sarrerei eta etxebizitza-gabeziari dagozkienak, aplikatzeko araudi autonomikoaren arabera erregulatu izan dira.

2013ko otsailaren 28ko Administrazio Kontseiluak onetsi berri du erroldatzeko betekizuna aldatzea, Irunviren erregistroarako sarbidea irekiz gutxienez urte 1 erroldatuta daramatenei, eta, horrenbestez, eskatzaile berriek aukera izango dute egungo zerrendak, itxaronzerrendak barne, amaitzen direnean.

Aldaketa horiek eta IRUNVIk etxebizitza babestua sustatze eta kudeatze aldera Administrazio Kontseiluak onartutako oinarri eta deialdietan azken urteetan izan direnek (bai Eskatzaileen Erregistroaren funtzionamenduari buruzkoek, bai esleipen-prozedurari buruzkoek) Irungo Babes Publikoko Etxebizitzaren Eskatzaileen Erregistroa Arautzeko Erregelamendua onestea ekarri zuten, Administrazio Kontseiluak 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran –gerora, Administrazio Kontseiluak 2014ko maiatzaren 30ean eta uztailaren 22an onartutako erabakien bidez, 2. eta 6. artikulua aldatu ziren–.

Etxebizitzaren ekainaren 18ko 3/2015 Legea indarrean sartu zenetik, ordea, aldaketa nabarmenak izan dira babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozeduran, eta, hori dela eta, beharrezkoa da indarrean zegoen erregelamenduaren ordezkia onartzea.

II.- IRUNVI/IRUNGO UDALEKO BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZAREN ESKATZAILEEN ERREGISTROA ARAUTZEN DUEN ERREGELAMENDUA.

1. artikulua: Jarduketaren xedea eta eremua

Erregelamendu honen xedea da Irunen Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroa arautzea, bai aipatutako Erregistrokoa izateko eskatutako betekizunei dagokinez, bai haren funtzionamenduari eta esleipen-prozedurari dagokienez.

Jarduketa-eremua IRUNViren bidez udal partzeletan edo etxebizitzan esleipena IRUNVIk kudeatutako partzela pribatuetan sustatutako babes publikoko etxebizitzena da (BPE).

2. artikulua: Datu-basean egoteko betekizunak.

2.1.- Etxebizitza behar izatea: aplikatzekoa den araudi autonomikoan ezarritakora egokituko da etxebizitza-beharrari buruzko betekizuna.

2.2.- Diru-sarrerak: aplikatzekoa den araudi autonomikoan ezarritakora egokituko da diru-sarrerei buruzko betekizuna.

2.3.- Bizilekua:

- a) Irunen erroldatua egotea.
- b) Azken 20 urteetan gutxienez 10 urtez Irunen erroldatuta egon izana. Ez da beharrezkoa eskaera-egunean Irungo Biztanleen Udal Erroldan izena emanda egotea.
- c) Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotea.

Ez zaie eskatuko gutxieneko erroldatze-betekizuna betetzea genero-indarkeriaren biktima direla egiaztatzen duten emakumeei, Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburuaren 2006ko urriaren 4ko Aginduan hala jasotzen baita, agindu hori genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako etxebizitzaren alorreko ekintza positiboko neurriei buruzkoa baita.

Honako hau izango da lehentasuna IRUNVIk egiten dituen esleipenetan:

- 1.- Lehenengo, azken 5 urteetan Irunen erroldatuta dauden pertsonak edo azken 20 urteetan gutxienez 10 urtez Irunen erroldatuta egon direnak.
- 2.- Bigarren, Irunen erroldatutako pertsonak.
- 3.-Hirugarren, Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta dauden pertsonak.

2.4. Babes Publikoko Etxebizitzen Eskatzaileen Erregistroan izena emateko eta udal-etxebizitza tasatuen sustapenetan parte hartzeko, Irungo Udal Etxebizitza Tasatuak Arautzeko Ordenantzak finkatzen dituen eskakizunak bete beharko dira.

3. artikulua: *Izena emateko eskaera.*

IRUNVI/Irungo Udalaren Babes Publikoko Etxebizitzaren Eskatzaileen Erregistroan sartzeko, izena emateko eskaera bete beharko da "BPE - IRUNVIIn izena emateko eskaera" ereduaren arabera, zeina Erregelamendu honen I. Eranskinean jasotzen den.

Bestalde, eskabidean aipatzen diren betekizunak automatikoki eguneratuko dira, unean-unean aplikatu beharreko araudiaren aldaketen arabera.

4. artikulua: *Erregistroan izena emateko eta mantentzeko prozedura*

Erregistroan izena emateko eta mantentzeko prozedura "Prozeduraren Eskuliburua"ren arabera egingo da, zeina II. Eranskin gisa doan.

5. artikulua. *Izen-ematea baliozkoa den epea eta izen-ematearen berritzea*

5.1. Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan izena ematea lau urtez izango da baliozkoa.

5.2. Etxebizitza eskatzen jarraitu nahi duten pertsona eta bizikidetzak-unitateek epe hori amaitu baino lehen eskatu beharko dute izen-ematea berritzeko.

5.3. IRUNVIk izena emateko epearen amaiera jakinaraziko die pertsona eta bizikidetzak-unitateei, izen-ematea berritzeko behar adina denbora emanda.

5.4. Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroko izen-ematearen indarraldia amaitzen bada eta izen-ematea ez bada berariaz berritzen, baja emango zaio.

6. artikulua. *Esleipen-prozedura*

Babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozeduretan parte hartzeko, Irungo Udaleko (IRUNVIko) Babes Publikoko Etxebizitzen Eskatzaileen Erregistroan izena eman beharko dute pertsona edo bizikidetzak-unitateek.

Oinarriek eta deialdiak osatuko dute prozedura, eta Irunviko Administrazio Kontseiluak haiek onartzen dituenean hasiko da.

Etxebizitza esleitzeko erabiliko den sistema izango da oinarriak eta deialdia onartzen direnean indarrean dagoen araudiak finkatzen duena.

7. artikulua. *Araudia aldatzeagatiko eguneratzeak*

Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatu beharreko araudia aldatzeagatik egin beharreko aldaketak automatikoki egingo dira.

8. artikulua. *Beste erregistro batzuekiko koordinazioa*

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Babestuen eta Zuzkidura Bizitokien Eskatzaileen Erregistroarekin koordinatu beharko du Babes Publikoko Etxebizitzen Eskatzaileen Erregistroak. Udal Erregistroa Eusko Jaurlaritzarenean sartzen bada, bertako izen-emateen antzintasuna errespetatuko da.

Era berean, dagokion hitzarmenaren bidez, udal-etxebizitza tasatuen eskatzaileen zerrenda osatzeko eta eguneratzeko agindu ahalko dio Udalak Eusko Jaurlaritzari.

Administrazio-erregistroak diren aldetik, datu pertsonalak babesteko araudia zorrotz errespetatuz, IRUNVIko Eskatzaileen Erregistroak datuak trukatu ahalko ditu beste erakunde publiko batzuetan horrelako datuak dituzten erregistro publikoekin, eta horiek informazioa eman ahalko diote elkarri.

9. artikulua: *Indarrean jartzea*

IRUNVIko Administrazio Kontseiluak onetsi ondoren jarriko da indarrean Erregelamendu hau.

10. artikulua. *Xedapen indargabetzailea*

Erregelamendu hau onetsita, IRUNGO UDALEKO (IRUNVIKO) BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZEN ESKATZAILEEN ERREGISTROA ARAUTZEKO ERREGELAMENDUA indar gabe gelditzen da –Administrazio Kontseiluak 2013ko martxoaren 18an egindako bilkuran onetsi zen–, baita haren aldaketak ere.

Irun, 2017ko martxoaren 8a

IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA/SOCIEDAD PÚBLICA DE VIVIENDA DE IRUN SAUko Administrazio Kontseiluko Presidentea,


José Antonio SANTANO CLAVERO.